

Legebiltzarrak Suhitzaileen legea onartu du ELAk eskatutako hobekuntzekin

Langileen mobilizazioei esker lortu da testua hobetzea. ELAren hainbat aldarrikapen jasotzen ditu, baina hainbat auzi garrantzitsu administrazioen esku geratu dira

Gaur, azaroaren 23an, Eusko Legebiltzarrak onartu du Suteen Prebentzio eta Itzaltze eta Salbamendu Legea. Plenoan onartutako legean, nabarmen hobetu da Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako lege aurreproiektua eta ELAren aldarrikapen garrantzitsuak jasotzen ditu.

ELAk honako hau nabarmendu du:

- Pribatizazioari muga jarri zaio, alde batera uzten baitu suhiltzaile zerbitzuen zeharkako kudeaketa, eta, gainera, zerbitzua funtzionarioek emango dutela jasotzen du. Gainera, suhiltzaile boluntarioaren eta Part Time suhiltzailearen figurak baztertu dira, lan baldintzen prekarizazioa ekar baitezakete.
- Kolektiboaren aldarrikapen historiko bati erantzuten zaio, eta Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuen funtzioak zehazten dira. Gainera, atea irekiko zaio SPEIsek espezialisten zerbitzu propioak sor ditzaten, edozein larrialdiren aurrean modu integrean eta arriskuen balorazioarekin bat etorritik erantzuteko, beren jardun eremuaren barruan.
- Langileei dagokienez, suhiltzaileen taldea C1era aldatzeko bidea gaitzen du, eta, taldez aldatuz gero, ondorio ekonomikoetarako ezintasuna desagertzen da. Hori bai, administrazio bakoitzaren negoziazio kolektiboarekin lotzen du. Beraz, Legeak ez du behartzen, baina gutxienez ez du eragozten aurreproiektuak jasotzen zuen bezala.
- Beste gai garrantzitsu bat zerbitzuak eskuratzeko lan eskaintzen kudeaketa da. Aurreproiektuak dena Euskadiko Poliziaren eta Larrialdietako Zerbitzuen Ikastegira (Arkaute) bideratzen zuen, administrazioetako LEPen diseinua eta kudeaketa. Behin betiko testuak baztertu egiten du Arkautek LEPak diseinatzeko aukera hori, eta, beraz, Arkautek ezin izango ditu LEPak diseinatu, ez oinarriak ezarri, ez eta prozesuetako epaimahaikideak izendatu ere. Administrazioek berek diseinatu beharko dituzte LEPak.

Puntu honek aurrez aurre talka egiten du Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundien LEP bateratuaren egungo prozesuarekin. Prozesu hori egiten ari da, eta polemikaz, irregulartasun salaketez eta erreklamazio judizialez inguratuta dago.

- Bigarren jarduera negoziatzeko bidea irekitzen da, jarduera bera bermatuz, nahiz eta administrazio bakoitzak garatu behar duen. Era berean, haurdun dauden funtzionarioak bigarren jarduerako egoerara igaro ahal izango dira aldi baterako, egoera hori egiaztatu ondoren. Bigarren jarduerako egoera hori erditu ondorengo aldian eta/edo edoskitzaroan luzatu ahal izango da, gehienez ere bi urtera arte.

Hobekuntzak lortu dira suhiltzaileen mobilizazioei eta presioari esker. Orain presio hori erakundeetara bideratu behar da (EAEko hiriburu eta aldundi eta udaletara), norbere eremuetan legea gara dezaten eta negoziazio mahaia zabaltzeko LEPei, taldeen alaketek, bigarren jarduerari eta abarri buruz hitz egiteko.